



www.vitoria-gasteiz.org

Aldi baterako kontratazio-zerrenda sortzeko deialdia

***Lanpostua: NEKAZARITZA ETA BASOZAINTZAKO
TEKNIKARI ESPEZIALISTA***

1. ariketa

TEST-GALDERAK

- ***30 galdera***
- ***4 erantzun aukeran***
- ***Denbora, gehienez: 45 min.***

Deialdia: 2016/05/31

Eredua:

D

Ez ireki esan arte.

- 1) Espezie hauetatik, adieraz ezazu zein den berezkoa Arabako Lautadako pre-txilardi tuparrizalean:
 - a.- *Erica cinerea*
 - b.- *Erica arborea*
 - c.- *Daboecia cantabrica*
 - d.- *Dorycnium pentaphyllum*

- 2) Baso hauetan du jatorria ekialdeko platanok —*Platanus orientalis*—:
 - a.- ur-bazterreko baso borealetan
 - b.- baso martzeszente azpimediterraneoetan
 - c.- galeria-baso mediterraneoetan
 - d.- baso hostoerorkor epeletan

- 3) Pinu hauetatik, zein da ohikoena baso borealetan?:
 - a.- *Pinus uncinata*
 - b.- *Pinus sylvestris*
 - c.- *Pinus pinaster*
 - d.- *Pinus nigra*

- 4) Espezie hauetatik, adieraz ezazu zein den igokari hostoiraunkorra, eta zenbait artadi eta karraskadi mediterraneoetan berezkoa:
 - a.- *Hedera helix*
 - b.- *Smilax aspera*
 - c.- *Tamus communis*
 - d.- *Lonicera peryclimenum*

- 5) Espezie hauetatik, adieraz ezazu zein jotzen den inbaditzailetzat, eta behin eta berriro moztea eskatzen duen, Zadorrako parkean:
 - a.- *Acer pseudoplatanus*
 - b.- *Fraxinus pensylvanica*
 - c.- *Ailanthus altissima*
 - d.- *Eucalyptus globulus*

- 6) *Quercus* generoko espezie hauetatik, zein da zeharo kaltzifugoa?
 - a.- *Quercus suber*
 - b.- *Quercus faginea*
 - c.- *Quercus coccifera*
 - d.- *Quercus robur*

- 7) *Juniperus sabina* espezie ugaria eta berezkoa da eskualde hauetako baso eta sastrakadietan:
 - a.- mediterraneoetan
 - b.- epeletan
 - c.- borealetan
 - d.- goi-mendikoetan

- 8) Espezie hauetatik, adieraz ezazu zein den inbaditzailea, eta alarma piztu duen, Eraztun Berdean ageri delako:
 - a.- *Carpobrotus edulis*
 - b.- *Azolla filiculoides*
 - c.- *Pennisetum setaceum*
 - d.- *Euphorbia characias*

- 9) Eraztun Berdeko ubide eta putzuetako makrofitoak soilitzeak helburu hau du:
- a.- uretako hegaztien hazkuntzan eta lezkadien zabalkuntzan laguntzea
 - b.- masa gazteagotzea eta zurezko espezieak ezar daitezela galaraztea
 - c.- makrofito-masen eragin araztailea bultzatzea
 - d.- masa gazteagotzea eta zuhaitz-espezieak ezartzen laguntzea
- 10) Espezie hauetatik, adieraz ezazu zein den ohikoa landa-larreetarako espezie-nahasturan, pisuaren % 50etik gorako proportzioan:
- a.- *Lolium perenne*
 - b.- *Festuca arundinacea*
 - c.- *Festuca glauca*
 - d.- *Cynodom dactylom*
- 11) Orkidea-espezie hauetatik, zein da arruntena Araban?:
- a.- *Orchis provincialis*
 - b.- *Anacamptis pyramidalis*
 - c.- *Ophrys speculum*
 - d.- *Cephalantera longifolia*
- 12) Adieraz ezazu zein den hilabeterik egokiena Arabako Lautadako tuparrizko muinoetako belardiak soiltzeko, orkidea-populazioak kaltetu gabe:
- a.- Martxoa
 - b.- Maiatza
 - c.- Uztaila
 - d.- Iraila
- 13) Bisoi europarraren kudeaketarako indarrean dagoen foru planak baldintzatu egiten du Gasteizko udalerriko ibai eta hezeguneen ertzeetan obrak egitea:
- a.- Ekainaren 1.etik irailaren 30era arte.
 - b.- Martxoaren 15etik uztailaren 31ra arte.
 - c.- Martxoaren 15etik abuztuaren 15era arte.
 - d.- Martxoaren 1.etik abuztuaren 15era arte.
- 14) Zuhaitz-espezie hauetatik, adieraz ezazu zein den berezkoa Arabako Lautadako haltzadietan:
- a.- *Populus tremula*
 - b.- *Fraxinus ornus*
 - c.- *Quercus robur*
 - d.- *Ulmus glabra*
- 15) Espezie hauetatik, adieraz ezazu zein den berezkoa Arabako Lautadako erkamezti subkantauriarretan:
- a.- *Viburnum opulus*
 - b.- *Viburnum tinus*
 - c.- *Viburnum lantana*
 - d.- *Frangula alnus*
- 16) *Rosalia alpina*-k hau du gogokoen bere bizi-zikloa osatzeko:
- a.- Itzalean dagoen kalibre lodiko egur hila
 - b.- Pago-egurra
 - c.- Eguzkitan dagoen kalibre lodiko egur hila
 - d.- Lizar-egurra

17) Adieraz ezazu uretako espezie hauetatik zeinek ezaugarritzen duen Betoñuko aintzira, Salburuko hezegunean:

- a.- *Iris pseudocorus*
- b.- *Caltha palustris*
- c.- *Phragmites australis*
- d.- *Carex riparia*

18) *Galium boreale*, mehatxatutako flora-espezieen EAeko katalogoan sartuta dagoen espeziea, hemen dago presente:

- a.- Salburuko hezegunean
- b.- Zadorraren ertzetan
- c.- Armentiako basoan
- d.- Olarizuko zelaietan

19) Espezie hauetatik, adieraz ezazu zein den berezkoa Arabako Lautadako pre-txilardi tuparrizaleetan:

- a.- *Vaccinium myrtillus*
- b.- *Aphyllanthes monspeliensis*
- c.- *Juniperus phoenicea*
- d.- *Ulex europaeus*

20) Adieraz ezazu ondoko espezieetatik eta mintegi-katalogoko aurkezpenetatik zein den egokiena herritarrek parte hartuko duten landaketa-kanpaina batean heskaiak landatzeko:

- a.- *Quercus faginea* CT 20/25
- b.- *Quercus faginea* RD 1/1
- c.- *Quercus faginea* CT 3 L
- d.- *Quercus faginea* RD 12/14

21) Olarizuko lorategi botanikoko arboretoan ordezkaturik dauden baso-formazioetatik, adieraz ezazu zein den baso epel submediterraneoetakoa:

- a.- Karraskadiak
- b.- Harizti azidofiloak
- c.- Amezti iberiarrak
- d.- Artelatz-basoak

22) Eguneko tximeleten eta beste intsektu fitofago batzuen presentzia faboratze aldera, hau da Gasteizko udalerriko landare-espezie egokienetako bat:

- a.- *Ilex acuífolium*
- b.- *Prunus spinosa*
- c.- *Ruscus aculeatus*
- d.- *Clematis vitalba*

23) Konifero hauetatik, adieraz ezazu zeinek duen izaera nabarmen mediterraneoakoa:

- a.- *Abies alba*
- b.- *Juniperus communis*
- c.- *Pinus brutia*
- d.- *Picea omorika*

24) *Nerium oleander* landare-espeziea honako hauetan da berezkoa:

- a.- Barrualdeko abarizti iberiarretan
- b.- Artelatz-baso lusitaniarretan
- c.- Galeria-baso mediterraneoetan
- d.- Baso martzeszente azpimediterraneoetan

25) *Senecio carpetanus*, mehatxatutako flora-espezieen EAEko katalogoan sartuta dagoen espezia, hemen dago presente:

- a.- Salburuko hezegunean
- b.- Zadorraren ertzetan
- c.- Armentiaiko basoan
- d.- Olarizuko zelaietan

26) Adieraz ezazu ondoko landaketa-formatu edo aurkezpen hauetatik zein den egokia baso-landaketa baterako landare-partida gisa:

- a.- *Fraxinus angustifolia* RD 10/12
- b.- *Fraxinus angustifolia* RF 0/1
- c.- *Fraxinus angustifolia* AF 300 cc
- d.- *Fraxinus angustifolia* CT-10L

27) Udalerrian presente dauden orkidea-espezie hauetatik, adieraz ezazu zein dagoen sartuta mehatxatutako flora-espezieen EAEko katalogoan:

- a.- *Serapias parviflora*
- b.- *Orchis mascula*
- c.- *Ophrys sphegodes*
- d.- *Himanthoglossum hircinum*

28) Gasteizko Eraztun Berdean, espezie exotiko inbaditzaile honen populazioak kontrolatzera zuzendutako lanak egin ohi dira:

- a.- Mapatxea
- b.- Sagar-barraskiloa
- c.- Floridako apoarmatua
- d.- Arrain katua

29) Olarizuko lorategi botanikoko arboretoan ordezkaturik dauden baso-formazioetatik, adieraz ezazu zein den baso borealetakoa:

- a.- Pagadi oligotrofikoak
- b.- Erkamezti iberiarrak
- c.- Urkidiak
- d.- Artelatz-basoak

30) Zurezko espezie hauetatik, adieraz ezazu zein den zeharo kaltzifugoa:

- a.- *Dafne gnidium*
- b.- *Cistus ladanifer*
- c.- *Erica vagans*
- d.- *Retama shaerocarpa*